

AGIRREAREN LEHENGUSU, NAZIEN ESPIOI



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Ribadeo (Lugo), 1902ko maiatzaren 12a. Juan Gomez de Lecube jaio zen. Beste iturri batzuek diote 1906an jaio zela Sestaon. Baina, jaioterria jaioterri, Euskal Herrian eman zuen haurtzaroa; Jose Antonio Agirre Lekube zuen lehengusu, gero lehendakari izango zena, eta, amarenaldetik umezurtza izanik, haren ondoan hazi zen. Anaia nagusia Luis Valentin ere ezaguna izango zen Hego Amerikan kontrabandista gisa; *Herrena* esaten zioten.

Juan ez zen herrena; futbolari profesionala izan zen, ezker hegalean jokatzeko zuen eta bere garaiko jokalaririk azkarrenetakoa izan zen kokapen horretan. Celta eta Atlético de Madrid taldeetan jokatu zuen, besteak beste, 1920ko hamarkadan. Futbola utzita, Kataluniara joan zen familiarekin eta Ogasunean hasi zen lanean; diru-sarrerak osatzeko, merkatu beltzean eta bitartekari gisa ere aritu zen.


Baina nazioarteko erakundeen interesa 1940ko hamarkadaren hasieran piztu zuen, alemaniarrentzat espioi lanak egiteagatik. Londresko artxibo nazionalako hari buruzko espedientea ikertu du *Sapiens* aldizkariak azken alean, Lecuberen nondik norakoak jasotzeko.

MI6aren txostenen arabera, naziek 1941eko urrian errekrutatuta eta 1942ko maiatza bitartean trebatu zuten. Ekai-



naren lehenean ontziratu zen Bartzelonan, Panamara bidean, baina hilaren 17an Trinidaden britainiarrek atxilotu zuten. Alemaniaren zenbait mezu atzeman zituzten bidean eta hilabeteak zeramatzaten Lecuberen atzetik. Alemaniaren zerbitzura Atlantikoa zeharkatu zuen agenterik garrantzitsuenetakoa eta arriskutsuenetakoa zen haientzat. Tinta ikusezina egiteko materiala eta Alemaniako inteligentzia zerbitzuko beste agente batzuen izenak eta helbideak zeramatzan atxilotu zutenean.

Churchillen kabineteko Barne ministro Herbert Morrisonen aginduz, Erresuma Batura eraman eta 020 esparruan sartu zuten 1942ko urriaren 4an. Britainiarren galdeketa gogorak alferrikakoak izan ziren. *Squealer* (salatari) izeneko plan berezi bat ere jarri zuten martxan, beste agente bat amu gisa erabiliz. Lecubek behin eta berriro askatze-



Juan Gomez de Lecube 1942an atxilotu zuteneko argazkiak. 1920ko hamarkadan futbol jokalaria izana, eta Bigarren Mundu Gerran alemaniarren agentea, Jose Antonio Agirre lehendakariaren lehengusua zen.

ERRESUMA BATUKO ARTXIBO NAZIONALA

ko eskatu zien Espainiako enbaxadoreari eta Ingalaterrako Barne ministroari, eta jasotako tratu kaskarra salatu zuen. Baina harengandik ez zuten batere informaziorik lortu. "Lecube gerra guztian izan dugun presorik zailena eta problematikoa izan da. Aitorpena lortzeko ahalegin guztietan porrot egin dugu", zioen 1945eko abuztuaren 10eko txosten batek. Gerra amaituta zegoen eta Espainiara deportatu zuten.

Entrenatzaile titulua aterata, Lleida nahiz Condal taldeak entrenatu zituen bere azken urteetan. 1966ko maiatzaren 2an hil zen Bartzelonan. ■



Rosie errematxatzailea hil da

1942an J. Howard Miller-ek, fabrikako langile baten argazkian oinarrituta, ezkerreko kartel ezaguna diseinatu zuen. AEBetako Gerra Batzordeak egin zion enkargua, emakumeek frontean zeuden gizonak industrian ordezkari zitzaten dei egiteko. Gerra amaituta irudia ahaztu egin zen. Baina 80ko hamarkadan *Rosie errematxatzailea* -horrela esaten diote

karteleko pertsonaiari, *Rosie the Riveter*- indarberrituta eta feminismoaren ikono bihurtuta itzuli zen. Sei urteko ikerlanaren ondoren, 2016an, James J. Kimble-k Rosieren atzean zegoen benetako emakumea aurkitu zuen: Naomi Parker Fraley. 20 urte zituela hasi zen gerra industrian lanean, eta urtarriaren 23an hil zen, 96 urte zituela. ■